



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

89. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Maiatza



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Maiatza

NABARMENDU BEHARREKOA

> **Bigarren urtez egin dute proiektuen Europako finantzaketara sartzeko bideei buruzko prestakuntza-ikastaroa**

Bigarren aldiz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Politika Fiskaleko eta Finantza Politikako, eta Kanpo Harremanetako zuzendaritzek antolatuta, proiektuen Europako finantzaketara sartzeko bideei buruzko prestakuntza-ikastaroa egin dute.


Ikastaroa bi saiotan (maiatzaren 6an eta 8an) egin dute eta langile teknikoei eta foru-buruzagitzako langileei zuzendu diete. Horren helburua Europako proiektuen diseinuari eta Europako funtsen eta lehia-konkurrentziako laguntza-programen ekintza-ildoen eta -egituren baitan duten kokapenari buruzko ezagutza praktikoa sortzea izan da.

Ikastarora joandakoek jarduera- eta gomendio-protokoloa ezagutzeko aukera izan dute Europako proiektua behar bezala egiteko. Ikastaroaren bigarren saioak helburu askoz ere praktikoagoa izan du eta helburua simulatutako proiektuan lan egin ahal izatea izan da. Horretarako, Europako deialdi baterako proiektu hipotetiko hori prestatzeko beharrezko dokumentazioa prestatu dute.

Ikastaro horretan, bestalde, Gipuzkoatik Europako deialdi ugarityara aurkeztutako proiektuen benetako esperientziak ezagutarazi dituzte.

Informazio gehiago:

https://dl.dropboxusercontent.com/u/56748384/Nola%20lor%20dezaket%20nire%20proiektuetarako%20europar%20finantzazioa_OSOA-2014.pdf



> Euskadiko 2007-2013ko EGEF Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordeak finantza arloko gauzatzea eta programaren garapena aztertu ditu

Maiatzaren 26an egin zuten Donostiako Enertic eraikinean Euskadiko 2007-2013ko EGEF Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen VII. bilera.

Bilera honako hauek bideratu zuten: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, eta Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioko Komunitateko Funtsen Zuzendaritza Nagusiak. Bileran Programa Operatiboak 2013an eta 2007-2013 aldian izandako garapenaren inguruko azterketa egin zuten honako gai hauen ikuspegitik abiatuta: finantza arloko gauzatzea eta administrazio publikoek eta parte-hartzaileek beren gain betetzeko konpromisoa hartu zuten programa eta ekintzen benetako garapena.

2013ari dagokion urteko txostenak inolako oharrik gabe onartu zuten. Era berean, POan gastu-kategoria onargarri batzuen egitura hurrengo urteetarako administrazioek aurrez ikusitako jardueren arabera egokitzeko egin beharreko aldaketak aztertu zituzten.

Halaber, eta nahiz eta euskal administrazioek egindako gastua 312,51 milioi eurokoa den, egiaztatutako gastua apur bat txikiagoa da. 2013aren amaieran, Programa Operatibo osoan ziurtatutako gastua 317 milioi eurokoa zen eta haietatik 270 milioi euro dagokie Euskadiko administrazio publikoei. Guztizkoaren % 85 da; hau da, programa osoan duen partaidetza baino ehuneko handiagoa. Gainera, ziurtatutako gastu-zifra horiek pilatutako gutxieneko gauzatze-baldintzak betetzea ahalbidetzen dute. Programa operatibo bakoitzak, urte bakoitzaren amaieran, Europako Batzordearen aurrean egiaztatu behar ditu zenbateko horiek EBk konprometitutako ekarpenak gutxitzea eragozteko. Betetzeari dagokion ehuneko % 107koa da Euskadira EGEF POari eskatu beharreko gutxienekoari dagokionez.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/EE_20140601_7ComitePOPV.pdf



> **Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako Funtsetan emakumeek eta gizonek berdintasuna izateko Emakunde antolatutako lan-jardunaldi batzuetan parte hartu du**

Maiatzaren 30ean, Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan, Gasteizen, lan-jardunaldi bat izan zen Europako Funtsetan eta gizon-emakumeen berdintasunaren inguruan. Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako, hiru hiriburu eta udaletako eta tarteko erakundeetako berdintasun-technikariak izan ziren jardunaldian eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean Euskal Autonomia Erkidegoaren Egiturazko Funtsetan berdintasuna izateari buruzko Lantalde Tekniko bat sortzeko bidean urratsak emateko balio izan zuen.

Lantalde hori sortzeko buruzko eztabaidaren aurretik, programazioa garatzeko lanetan dabilen erakundeek 2014-2020rako programazioaren egoerari buruz bakoitzak izandako esperientziak eta programazio horretan berdintasuna txertatzeko zer urrats eman dituzten azaltzeko aukera izan zuten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, esaterako, gizon-emakumeen berdintasuna garatzeko marko estrategikoa (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana 2012-2020 aldirako, Departamentu arteko Talde Teknikoa eta Departamentu arteko Unitateak) aurkeztu zuen eta ondoren, lurraldean gauzatutako programazio-prozesua azaldu zuen. Foru Aldundiak jarduerak kudeatzen dituzten Departamentuei laguntzen eta kontratazio publikoen deialdietan txertatu beharreko irizpideak, klausulak eta laguntza-programetan eta EGEF lor dezaketen jardueren kontratazio-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko hartu beharreko neurriak helarazi dizkie. Era berean, eskatu diete identifika ditzatela programatu beharreko jardueretan gizon-emakumeen berdintasuna sustatzeko hartzeko asmoa duten neurriak.

Gainera, eta Araudiak programatutako jarduera bakoitzerako emaitzen adierazleak identifikatu beharra ezartzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Departamentuei eskatu die txerta ditzatela emaitzen adierazle zehatzagoak ekintza bakoitzak gizon-emakumeen berdintasunaren alde zer ekarpen egiten duen neurtzeko. Adierazle bakoitzerako balio-helburu bat eta tarteko mugariak ezartzen ari gara.

Informazio gehiago:

<http://www.emakunde.euskadi.net>



> **Bidasoa ibaiaren bi aldeetako gazteek etorkizuneko Euskal Eurohiriaren inguruko gogoeta egingo dute**

Akitania-Euskadi Euroeskualdeko proiektuen 2013ko deialdiaren baitan, eta Eusko Ikaskuntzak zuzenduta, **Eurohiriaren Gazte Foroa** izeneko ekimena jarri dute abian.


Proiektuak era askotako prestakuntza eta jarrera parte-hartzailea duten gazteak jarriko ditu mahai baten inguruan foro bat eratzeko asmoz. Handik euskal Eurohiriari buruzko diagnostikoa, erronkak eta proposamen zehatzak aterako dira. Parte-hartzaileen hautaketa-prozesua irekita dago: taldean lan egiteko gaitasuna duten 18 eta 30 urte arteko 30 gazte bilatu nahi dituzte (mugaren alde bakoitzeko hamabost).

Batzorde Zientifikoaren zuzendaritzapean, bibliografia lagungarria emango diete eta adituen konferentziak jasoko dituzte. Hori abiapuntutzat hartuta, hausnarketa- eta elkarrizketa-prozesuan zehaztuko dute pixkanaka gazteek etorkizuneko euskal Eurohiria nolakoa izatea nahi duten eta, horretarako, gai hauekin lotutako helburu eta proposamenak finkatuko dituzte: kultura, ekonomia, komunikazioa eta hezkuntza.

Mugaren bi aldeetako gazteen arteko harremanak bultzatzeaz gain, Eurohiriaren Gazte Foroa proiektuak metodologia dinamikoa eta parte-hartzailean oinarrituta gizarte eta hezkuntza arloko dimentsio argia du.

Informazio gehiago:

<http://eusko-ikaskuntza.org/es/novedadesyagenda/novedades/object.php?o=23565>



> 2014ko Maiatza

> **Non ikusten duzu Europa Euskadin? Ezagutzera eman dituzte argazki-lehiaketako hirugarren edizioako irabazleak**

Hirugarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzak, otsaila eta maiatza bitartean, Europa euskal gazteei gerturatzea helburu zuen **Non ikusten duzu Europa Euskadin?** gazteentzako argazki-lehiaketa jarri zuen abian. Argazkietan, Europak gazteen hurbileko ingurua garatzen lagundu duen moduari buruz gazteek duten ikuspegia islatzera animatu nahi izan dituzte.

Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak sustatutako ekimena Facebook-en duen plataformaren bidez garatu da. Parte-hartzaileek argazkiak jarri eta Europari buruz duten ikuspegia partekatu ahal izan dituzte sormena erabilita.

Maiatzaren 19an Europaren Egunaren ospakizunen baitan entregatu zituzten hirugarren edizioako sariak. Epaimahaiak aukeratutako argazki onenarentzako lehen saria bi lagunentzako bidaia izan da Bruselara eta Gernikako MADDY MORILLASEk eskuratu du; bigarren saria (iPhone smartphonea) Gasteizko DESIRÉE LADOK irabazi du; eta Facebooken boto gehien eskuratu duen argazkiaren saria (hirugarren saria), "Bilbao BBK Live 2014" jaialdirako 2 sarrera, Ermuako AINHOA SANCHEZek eskuratu du.

Lehiaketaren Facebook webgunearen hirugarren edizioak 800 zaletu berri lortu ditu eta 2.800 zaletu ingurura iritsi da.

Informazio gehiago:

www.facebook.com/feder.ejgv

https://twitter.com/feder_euskadi



KOHESIO-POLITIKA

> Itsaso eta Arrantzako Europako Funts berria onartu dute

Europako Parlamentuak apirilaren 26an onartu zuen Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsa. Funtsak 6.500 milioi euroko aurrekontua izango du 2014-2020 aldi operatiborako eta Arrantza Politika Komunaren erreforma berria aplikatzeko proiektuak finantzatzea ahalbidetuko du. Gainera, laguntza ekonomikoa emango die arrantzaleei, akuikultoreei eta kostaldeko populazioei araudi berrietara egoki daitezen.

Lehenengo aldiz, Funtsak itsasoko politika integratua eskainiko du koordinazio transnazonala eta sektore artekoa erraztuz. Finantzaketa sektore ugari mesede egingo dien, baina sektore-politika espezifiko baten esparruan edo kide den Estatu bakarrak abian jarri ezin duen ekimen transnazonaletan kontzentratuko da. Horien artean, adibidez, honako hauek aipa ditzakegu: itsas espazioaren antolamendua, itsasoko zaintza integratua eta itsas ingurunearen ezagutza.

Europako Parlamentuak onartu ondoren, Funtsaren inguruko proposamena Arrantza arloko ministroei bideratuko diete Kontseiluan behin betikoz onar dezaten. Hori dela eta, Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsa aurtengo ekainean jar daiteke indarrean. Onartutakoan, kide diren estatuek beren programa operatibo nazionalak prestatu beharko dituzte eta, horietan, esleitutako funtsak nola erabiltzea aurrez ikusi duten zehaztu beharko dute. Ondoren, Batzordeak programak onartzen dituenean, Estatu mailako agintariek erabaki beharko dute zer proiektu babestu nahi duten.

Informazio gehiago:

<http://www.guiafc.com/images/pdfs/2014-IP-458.pdf>



> "Euskal Eurohiriaren Sare Berdea eta Urdina" proiektuak POCTEFaren laguntza izango du

Baiona-Donostia Euskal Eurohiria Mugaz Gaindiko Agentziak 2011n jarri zuen abian **REDVERT - Euskal Eurohiriko Sare Berdea eta Urdina** proiektua eta 2007-2013ko Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboko (POCTEFA) azken deialdian hautatu duten ekimenetako bat izan da. Horri esker, 197.782 €-ko EGEF diru-laguntza eman diote; hau da, proiektuaren guztizko kostuaren % 65ekoa (304.280 €).

Mugaz Gaindiko Agentziak EKOLUR eta ETEN Environement izeneko ingurumen-aholkularitzekin eta lurraldean eskuduntza duten eragile guztiekin egiten du lan proiektuaren 1. fasea prestatzeko. Lehen fase horrek Euskal Eurohiriko korridore ekologikoen sareko ikerketa kartografikoa eta bioaniztasun arloko oztopoen identifikazioa biltzen ditu.

Proiektua 3 fasek osatzen dute:

- Euskal Eurohiriko korridore ekologikoei buruzko ikerketa kartografikoa egitea (2012tik 2014ra).
- Euskal Eurohiriko korridore ekologikoak babesteko eta balorizatzeko ekintza-plana eta estrategia prestatzea (2014-2015).
- Ekintza-planaren, strategiaren eta ikerketaren animazioa eta hedapena (2014-2015).

2014ko ekainean amaituko den ikerketak Eurohiriko bilbeak, bioaniztasuneko erreserbak eta korridore ekologikoak zehazten lagundu digu. Horrekin lotuta, konektagarritasun ekologikorako gatazka-eremuak eta puntu beltzak identifikatu, Eurohiriko oinarritako eremu eta sektoreak zehaztu eta Euskal Euro hiriko korridore ekologikoen konektagarritasuna errazteko gomendioak egin nahi dituzte.

2014ko ekainean, Baiona-Donostia Euskal Eurohiria Mugaz Gaindiko Agentziak proiektuaren 2. eta 3. faseak lantzea aurrez ikusi du. Lan horiek ekintzen programa operatiboa eta estrategia prestatzea biltzen dute lurraldeko gune naturalen konektagarritasuna bermatze aldera (Euskal Eurohiriko korridore ekologikoen ikerketa kartografikoko emaitzak oinarritat hartuta prestatutakoa). Horrez gain, Euskal Eurohiriko korridore ekologikoen ikerketa kartografikoaren eta ekintzen programa operatiboaren animazioa eta balorizazioa egin nahi ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.eurociudad.org>



> **Akitania-Euskadi Euroeskualdeak hausnarketa estrategikorantz aurrera egin eta lehentasunezko esku-hartze arloetako proposamena aurkeztu du**

Joan den urtearen amaieratik, Akitania-Euskadi Euroeskualdea Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea hausnarketa-prozesuan sartuta dago 2014-2020 aldian Euroeskualdearen eremuan garatu beharreko lehentasunezko ardatzak finkatuko dituen Plan Estrategikoa prestatzeko asmoz.

Orain arte, Euroeskualdeko diagnostikoa egin dute eta horrek bi eskualdeen artean lankidetzaz egiteko oztopo eta osagarritasun nagusiak identifikatzea ahalbidetu du. Horrekin lotuta, egindako lanak Euroeskualdearen etorkizunerako lehentasunezko esku-hartze eremuak identifikatzea ahalbidetu du.

Identifikatutako arloak lau dira: Herritarrak, Jarduera Ekonomikoa eta Ikerkuntza, Lurraldea eta Gobernantza. Arlo horietako bakoitzerako helburu batzuk zehaztu dituzte eta etorkizuneko jarduera-ildoetan aurrera egin dute.

Akitania-Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen Euroeskualdeko geografiako eragile ugarien iritzia ezagutzeko asmoz, parte-hartze inkesta argitaratu dute.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/>



> **“Europa 2014: galdutako arkaren bila”, EHUko Udako Ikastaroetako Eurobasken ikastaroaren izenburua**

EUROBASKEk, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, aurreko edizioetan bezalaxe, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan hartuko du parte. Oraingoan, eta “Europa 2014: galdutako arkaren bila” izenburupean, Eurobaskek antolatutako ikastaroak, beste hainbat gairen artean, honako hauek landuko ditu: migrazio-mugimenduak, populismoa, kontinentearen erronka demokratikoak eta sozialak, gizarte eta ekonomia mailako ereduak, eta Europaren jarrera nazioarteko testuinguruan.

Ikastaroan hizlari gisa unibertsitateko irakasleek eta prestigio handiko adituek hartuko dute parte eta gai hauek jorratuko dituzte: lehen jardunaldian, 2014ko maiatzeko hauteskundeen ondorengo erronka politikoak aztertuko dituzte. Era berean, finantza eta ekonomia mailako talde nagusien zein Europa merkatu huts izatera mugatu nahi duten estatu-kideen presioen aurrean proiektu komuna, Europako kohesioa eta lidergo politikoa berreskuratu ahal izateko Europar Batasun berriaren diseinurantz aurrera egiteko moduaren inguruko hausnarketa egingo dute.

Bigarren jardunaldian, aldiz, gizarte mailan ekitatiboa eta iraunkorra den susperraldia abiarazteko hasi beharreko Europako erreformak zein diren aztertuko dituzte.

Hirugarren jardunaldian, Europako ekonomiaren eta politikaren bilakaeran eragin handia duten errealitate geografikoak eta ekonomikoak ezagutzen saiatuko dira.

Ikastaroa Donostiako Miramar jauregian egingo dute uztailaren 16, 17 eta 18an.

Informazio gehiago:

<http://udaikastaroak2.i2basque.es/portal/images/cursosPdf/C4.pdf>

<http://eurobask.org>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **Batzordeak 2020ko Europako Estrategiari buruzko kontsulta publikoa jarri du abian**

Batzordeak hala proposatuta, martxoan, Europako Kontseiluak Europa 2020 Estrategiaren lehen lau urteen balantzea egitea adostu zuen. Aldi berean, Batzordeak "Europa 2020 Estrategiaren balantzea hazkunde adimentsurako, iraunkorrerako eta integratzaileko" izeneko jakinarazpena onartu zuen. Bertan, Europako strategiaren aplikazioko lehen urteei buruzko aurretiazko ondorioak ateratzen ziren.

Balantze horretatik abiatuta, Batzordeak kontsulta publikoa jarri du abian hurrengo urteotarako strategiaren diseinuaren inguruko gogoeta egiteko. Inkestak hiru zati ditu: lehenengoak Estrategiaren garapenari buruzko hausnarketa biltzen du azalpena egin zen unetik oraingo unera arte; bigarrenak, aldiz, ideiak jasotzeko helburua du Estrategiaren garapen-aldiko erronkarekin lotuta; eta hirugarren zatiak iruzkinak jasotzeko helburua izango du.

Kontsulta 2014ko maiatzaren 5etik urriaren 31ra bitarte egongo da zabalik. Kontsulta publikoa amaitzean, Europako Batzordeak jasotako erantzunak aztertu eta landuko ditu. Kontsultako emaitzak oinarritzat hartuta, Batzordeak 2015. urtearen hasieran proposamenak egingo ditu Europa 2020 Estrategia garatzeko.

Informazio gehiago:

Europa 2020 hazkunde adimentsurako, iraunkorrerako eta integratzaileko Estrategiaren balantzea

http://ec.europa.eu/europe2020/pdf/europe2020stocktaking_es.pdf

Europa 2020 Estrategiari buruzko kontsulta publikoa

http://ec.europa.eu/europe2020/public-consultation/index_es.htm



> **RIS3 - Espezializazio Adimentsuko Euskadiko Estrategia eta PCTI 2020ren ildo estrategikoak onartu dituzte**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluak Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren RIS3 dokumentua onartu du. Hura prestatzeko lanetan hartu dute parte I+G arloko estrategiarekin zuzeneko lotura duten Jaurlaritzako sailek eta gai horietan lan egiten duten beste erakunde eta eragile publiko eta pribatu batzuei ere eman diete aldera dezaten. Era berean, PCTI Euskadi 2020ren oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoak onartu dituzte.

Eskualdeko funtsak ikerketan eta berrikuntzan inbertitu baino lehen, eskualdeek Espezializazio Adimentsuko Estrategiak (RIS3) izenekoak egin behar dituzte. Estrategia horiek ikuspegi estrategikoa ematen dute garapen ekonomikorako ikerketara eta berrikuntzara zuzendutako laguntza zehatzaren bidez. Eskualde bakoitzak abantaila lehiakorra duten lehentasunezko eremuen multzo mugatuan oinarritu beharko du.

Testuinguru horretan, eta indarrean dagoen PCTI 2015 izenekoak oinarritzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak Espezializazio Adimentsuko Euskal Estrategia berri bihurtuko dena garatzeko Europar Batasunak honako estrategia honetan ezarritako prozedura metodologikoak bere egin ditu: "Hazkunde Adimentsua".

Onartutako dokumentuaren arabera, eta eskaerari erantzuteko enpresa-gaitasunak eta zientzia eta teknologia arloko gaitasunak kontuan izanda, Euskadin espezializazio adimentsuko lehentasunezko hiru esparru identifikatu dituzte: fabrikazio aurreratua, energia eta biozientzia-osasuna binomioa.

Lehentasunezko esparru horiez gain, zientzia-eta teknologia arloko eta enpresako garapenerako potentzialtasunak dituzten eta lurraldeari lotuta dauden jarduera batzuk identifikatu dituzte "aukera-zoko" gisa. Zehazki, jarduera hauek hobetu beharreko eremu gisa jaso dituzte: nekazaritzako elikagaien sektorea; ekosistemak eta ingurumen arloko birsorkuntza; sormeneko, turismoko eta kulturako industriak; hiri-garapenarekin eta lurraldearen plangintzarekin lotutako jarduerak.

RIS3 txostena eta identifikatutako lehentasunak egun indarrean dagoen PCTI 2015etik aurrera ordezkatu duen "Euskadi PCTI Euskadi 2020 berriko oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoak" dokumentuan jaso dituzte.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/18940-euskadi-aprueba-estrategia-especializacion-inteligente-las-lineas-estrategicas-del-pcti-2020>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Maiatza

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Partners. The European Union invests in our Regions (Bazkideak. Europar Batasunak gure eskualdeetan inbertitzen du) (Europako Batzordea)**

Europako Batzordearen Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiak liburu berria kaleratu du orain gutxi komiki formatuan. "Bazkideak" (ingelesez, "partners") izenburua du eta helburua Eskualdeko Hiri Politika aurkeztea da. Horretarako, publiko gazteena erakartzeko diseinatutako sei istorio jaso dituzte.

Komiki formatuaren bidez, EBk finantzaturako benetako proiektuen esperientziak azaltzen dira eta Europar Batasunak bizi mailetan dauden aldeak murrizteko eta eskualdeei garatzen laguntzeko egindako ekarpena erakusten dute.

Komikiko 6 istorioen bidez landutako gaiak honako hauek dira: ikerkuntza eta berrikuntza, hiri-garapena, ingurumena, ETE-ei laguntza, gizarteratzea, IKTak, eskualdeen arteko lankidetzeta, garraioa, hondamendi naturalen aurrean eskualdeen arteko elkartasuna eta abar.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/bd/bd_euregio_en.pdf

<http://www.youtube.com/watch?v=F5CYHi1V0oY>



> 2014-2020 Kohesio Politikako egitura- eta inbertsio-funtsen ebaluazio-planetarako orientazio-gida

Ebaluazioak oinarrizko elementua dira Kohesio Politika berriaren emaitzak bideratzeko. Ebaluazio-planak emaitzen kalitatea hobetzeko eta programazio-jardueretan erabiltzeko, eta kudeaketako agintaritzen txostenak prestatzeko lagungarriak izango dira.

Testuinguru horren baitan, Kudeaketako Agintaritzek orientazio hori hartu beharko dute oinarriztat beren ebaluazio-planak diseinatzeko. Aipatutako planak Jarraipen Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio programa onartu eta, gehienera jota, urtebeteko epean.

Gainera, programen inpaktua ebaluatzeko araudi mailako betebeharrak betetzen ere lagunduko diete.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/2014/working/evaluation_plan_guidance_en.pdf



> **Maila anitzeko Gobernantzarako Gutuna Europan (Eskualdeen Batzordea)**

Maiatzaren 9an, Europako Eguna zela eta, Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordeak tokiko eta eskualdeetako agintariak "Maila anitzeko Gobernantzaren Gutuna Europan" izeneko sinatzera gonbidatu zituen.

Eskualdeen Batzordeak politikak prestatzeko printzipio nagusi gisa gobernu maila guztiei "maila anitzeko gobernantza" erabiltzeko dei egin die. Horrekin lotuta, beste batzuegandik ikasten, jardunbide egokiak partekatzen eta demokrazia parte-hartzailea neurri handiagoan garatzen lagundu nahi die.

Gutuna on line eskuragarri eta zabalik dago Europa osoko udalerrri eta eskualdeek modu elektronikoan sina dezaten.

Informazio gehiago:

www.cor.europa.eu/mlgcharter